

MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

OPORRAK BAKEAN

Ane Pirata eta Patakon
hondartzara joan dira gaur.
Bertan ezagutu
dituzte Galia eta Izar,
sahararra bata eta
euskalduna bestea.



elkarlanean



PATAKON!
DAGOENEO KENDUKO
ZENUEN KRESAL
GUZTIA!

NI ITSASOKO GIZONA
NAIZ, NAHIKOA KRESAL DAUKAT
PILATUTA LEHENAGOTIK!

BA NIRI IZUGARRI
GUSTATZEN ZAIT KRESALA!
DUELA GUTXI ARTE, EZ NUEN
SEKULA DASTATU.

NIRE AMAK ETA AMONAK
KONTATZEN DIZKIDATE ITSASOKO
KONTUAK: NOLA JOATEN ZIREN ARRANTZARA,
NOLA JATEN ZUTEN ARRAIN FRESKOA
ETA AMONAK NOLA JOSTEN ZITUEN
ARRANTZARAKO SAREAK. BAINA
ITSASOEA EZ NEUKAN IKUSITA.


EZ ZENUEN
ITSASOEA EZAGUTZEN?

GALIA EZ BAITA BERE
HERRIAN BIZI. MAROKOKO
ERREGE BATEK OKUPATU
ZUEN ASPALDI MENDEBALDEKO SAHARA,
ETA SAHARAR ASKOK IHES EGIN
ZUTEN. BERTAN BIZI DIREN
SAHARARRAK ERREGEAREN MENPE
BIZI DIRA, OSO BALDINTZA
GOGORRETAN.





HEMEN MEDIKURA JOATEN GARA.
BISTA BEGIRATZEN DIGUTE, ENTZUMENA,
DENTISTARENGANA JOATEN GARA



HEMEN BIZIKLETAN IBILTZEN GARA,
JOSTAILUAK DITUGU ESKURA, ZUEN OHITURA BITXIAK
EZAGUTZEN DITUGU: PLATEREAN ETA MAHAI TRESNEKIN
JATEA, URA BUKATUKO DEN BELDURRIK GABE
DUTXATZEA, HORTZAK ITURRIAN GARBITZEA,
ARROPAZ NAHI BESTE ALDATZEA...




JAN ERE GEHIAGO EGITEN DUGU.
GUK MAIZ OTORDU BAKARRA EGITEN DUGU.
ETA, HEMEN, EGUNEAN BOST OTORDU EGITEN
DITUZUE. ETA IZOZKIAK ETA JOGURT HOTZAK JATEN
DITUGU. ZE GOZOAK!



EURIAZ ERE GOZATZEN DUGU HEMEN.
KANPAMENTUETAN EURIA EGITEN DUENEAN SEKULAKO
TRISKANTZAK GERTATZEN DIRA HEMEN
EZ BEZALA.





Oporrak Bakean kide ezberdinek osatutako talde bat da. Programa antolatu ahal izateko beharrezkoak dira denak: harrera familiak, Elkarte edota udalak, Oporrak Bakean lan taldea, Fronte Polisarioaren Ordezkaritza Euskadin, SEADeko Gazteria Ministerioa eta Familia sahararrak.

Programa honen bitartez, udako bi hilabeteetan zehar, 10 eta 12 urte bitarteko saharar haur errefuxiatuak familia euskaldunetan edo aterpetxeetan harreran hartzea ahalbidetzen da.

Honi esker, haur sahararrek uda basamortutik eta errefuxiatu kanpamentuetatik kanpo pasatzeko aukera dute, eta familia euskaldunek berriz Herri Sahararra lagundu eta beste kultura batekin elkarbizitzeko aukera.



www.oporrabakean.eus
 oporrabakean@gmail.com
 Araba: 665 711 947 / Bizkaia: 658 751 359 /
 Gipuzkoa: 696 014 786